



INFORMAZIO OHARRA: ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUAREN ARGIBIDEAK

Abenduaren 10eko lehendakariaren 44/2020 DEKRETUaren arabera, zeinaren bidez prebentzio-neurri espezifikoak testu bakar batean bildu eta eguneratuko diren, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eraqindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

“Bakarka bakarrik egin ahal izango da kirola, taldeko edozein kirol-jarduera eten egiten da, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Salbuetsita daude, eta egin daitezke lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak”.

Hau da txapelketa Profesionala:

Futboleko Santander eta Smartbank Ligak eta saskibaloiko Endesa Liga (ACB). Baita Liga hauetan parte hartzen duten taldeen nazioarteko lehiaketak ere”.

Hau da Txapelketa erdi-profesionala:

“Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketa ezberdinak eta baita Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketak ere; hauek guztiak kategorian absolutuan. Kategorian absolutua baino lehenagokoetan, **estatuko edo nazioarteko lehiaketak ere sartuko lirarteke**”.

Atal honetan sartzen dira ere kirol autoktonoen goreneko lehiaketak maila absolutua”.

ERDI-PROFESIONAL KONTZEPTUA ARGITZEA:

- Dagozkien Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko federazioaren **egutegian argitaratuta dauden txapelketak dira**.
 - EZ DIRA ERDI-PROFESIONALTZAT HARTZEN: Dagozkion Euskal Federazioaren egutegian lehiaketa argitaratuta ez dutenak, **kirol autoktonoen goreneko txapelketak salbuesten dira**.
- **ERDI-PROFESIONALAK dira:**
 - AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ESTATUAN EDO NAZIOARTEAN egiten ari diren LEHIAKETA profesionalean edo erdi-profesionalean KATEGORIA ABSOLUTUAN parte hartzen duten beheagoko kategoriako kirolariak, **2006. urtearen aurreko urteetan (2006 barne) jaiotakoak**
 - ESTATUAN EDO NAZIOARTEAN egiten ari diren LEHIAKETA erdi-profesionalean KATEGORIA ABSOLUTUA BAINO BEHERAGOKO kirolariak, **2006. urtearen aurreko urteetan (2006 barne) jaiotakoak**
- KATEGORIA ERDI-PROFESIONALAREN ZIURTAGIRIAK. **Euskal federazioek** bakarrik eman ahal izango dituzte kirolari horiek egiaztatzen dituzten ziurtagiriak.
 - Aurreko puntuetan zehaztutako irizpideak betetzen ez dituzten kirolariak ematen dizkien federazio orok EZ DU BETEKO 38/2020 Dekretua.
 - Federazio horiek ematen ez dituzten ziurtagiri guztiak EZ DIRA BALIOZKOAK IZANGO; beraz, ziurtagiri horiek ematen dituen erakundeak edo pertsonak EZ DU BETEKO 38/2020 Dekretua.

Oharra: Urdinez, azaroaren 6ko, 38/2020 Dekretuaren interpretazioarekiko aldatetarik.

Aipatutako abenduaren 10eko 44/2020 Dekretua indarrean dagoen bitartean aplikatuko dira neurri horiek guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 14.

